

**PIARRES LARZABALEN IDAZLANAK - VII:
OROITZAPENAK**

Liburukiaren aurkezpena

Baiona, 1998-05-29

PIARRES LARZABALEN IDAZLANAK - VII: OROITZAPENAK

Piarres Xarritton-ek paratua. 1998. Elkarlanean

Baiona, 1998-05-29

J.L. Davant

Liburu honen aurkezpena edo presentatzea euskaraz eginen dugu bistan dena Xarritton-ek eta nik, euskaraz idatzia baitu euskaltzain batek, eta ez baitzuen besterik nahiko idazleak berak, euskaldunak zaretelarik gainera hemengo entzule gehienak.

Baina lehenik bi hitz erranen ditut frantsesez, egun hauetan hizkuntza horretan aditu dudan esaldi harrigarri batez, eta hau da: hizkuntza pribatuak direla Errepublikaren eremuan dauden hizkuntzak, frantsesaz besteak. Beraz, errana izan den hizkuntzan jorratuko dut laburki.

* * *

D'abord je vais commenter rapidement dans la langue où on l'a tenu un propos qui a été proféré ces jours-ci contre les langues dites régionales. J'estime qu'il est de nature à troubler le Père Larzabal dans son repos éternel, car ce propos me semble proprement scandaleux et monstrueux.

En effet, il a été dit que les langues régionales sont des langues privées, qui doivent rester privées, car il serait absurde de les officialiser dans la République une et indivisible.

Du point de vue scientifique, cette affirmation est insensée: toute langue est publique par nature et par vocation, car elle est faite pour communiquer avec autrui. Nous sommes donc face à une définition politique qui signifie que la langue privée est une langue privée de ses droits. L'auteur de ce propos est M. Poignant, maire de Quimper en Bretagne, chargé du dossier des langues régionales par le gouvernement. Comment M. Jospin, premier ministre, a-t-il pu confier un dossier aussi brûlant à un homme aussi incompétent et aussi dangereux? Se rend-il compte de la violence que ce propos irresponsable et provoquant peut susciter dans les esprits? Ce n'est pas ainsi qu'on réglerait par exemple la question corse, car il y a là autre chose qu'une histoire de gros sous, il y a comme ici un problème linguistique.

Toutefois gardons notre calme, nous n'avons rien à gagner dans la voie de la violence, car dans ce domaine l'Etat français est beaucoup plus riche et plus doué que nous. Continuons donc à travailler inlassablement. Nous avons des alliés en Europe:

avec eux, assiégeons le bunker jacobin, sapons l'exception française, nous l'aurons finalement par l'usure et la honte.

* * *

(Lehenbizi bere mintzairan aipatuko dut egun hauetan eskualdeetako hizkuntzen aurka errana izan den esaldi bat. Pentsatzen dut Aita Larzabal asalda dezakeela bere betiereko bakean, ezen eskandalgarria eta higuingarria zait esaldi hori.

Eiki hor errana izan da pribatuak direla eskualdeetako hizkuntzak, eta pribatu egon behar dutela, zentzugabekeria bailitzake horien ofizial egitea bat eta zatiezina den Errepublikan.

Jakintzaren aldeetik, esaldi hori da zentzurik ez duena, naturaz eta eginbidez publikoa delako edozein hizkuntza, gizalagunekin kurutzatzeko egina izanez. Politikoa da, beraz, delako definizioa, erran nahi du hizkuntza pribatua bere eskubideez dela pribatua, hau da, gabetua. Errailea Poignant jauna da, Quimperreko britainiar auzapeza, eskualdeetako hizkuntzen dozieraz kargatua gobernuaren izenean. Nolaz ote Jospin lehen ministroak holako dozier minbera pasa dio hain ezjakina eta arriskugarria den gizon bati? Ohartzen ote da nolako bortizkeria sortzen ahal duen espirituetan? Ez dute horrela konponduko, adibidez, Korsikako arazoa, zeren badago han diru aferez besterik, hemen bezala baitute han ere hizkuntzaren problema.

Halere, gauden baketsu, bortizkeriaren bideetik ez genezake deus irabaz, horretan askoz ere gu baino aberatsago eta trebeago baita Frantziako Estatuak. Jarrai dezagun lanean eten gabe. Lagunak baditugu European: horiekin hertsia dezagun jakobinismoaren bunkerra, frantsesen salbuespena pipia dezagun, azkenean higaduraz eta ahalkez garaituko dugu).

* * *

Piarres Larzabal-en idazlanetan, Xarritton-ek paraturik, zazpigarrena dugu, beraz, hau. Lehen lauak antzerkiz beteak ziren, antzerki idazlea baitzen nagusiki Larzabal zena. Beste biak ipuin, ixtorio, ikerlan eta hitzaldiz hornituak dira. Hau oroitzapenez dugu, tituluak adierazten duen bezala. Berrehun bat orrialde ditu, hamahiru zatitan banatuak.

1. Lehen Piarres Xarritton-en aintzin-solasa. Egokiena zen Xarritton hortako, lan osoaren paratzeko bezala, Hazparnekoa izanez, aita Larzabal hango bikario zelarik ongi ezagutu baitu.

2. *Nere aitormenak*. Bere sinestea du aitortzen Larzabal-ek, apaiza dela inoiz ahantzi gabe. Hargatik San Agustinen kofesioak ere aipatzen ditu, baina bere bekatu arruntez balentriarik egin gabe.

3. *Haurreko oroitzapenak*. Azkaingo semea bere herritik laster joanen da ikasle Hazparnera, gero Uztaritzeko apaiztegira.

4. *Soldadogoa Parisen*. Erizaingoan ikasi zuen horri esker eta bere bizi guzian ederki baliatuko du dohain hori.

5. *Gerlako oroitzapenak*. 1939-an apaizturik eta Hazparnera bikario izendaturik, laster joan behar izan zuen gerlara. 1940-eko ekainean presoner hartu zuten eta Alemanian egon zen 1942-raino. Hor zinez eri eta gaixo zegoela, utzi zuten aske.

6. *Hazparneko oroitzapenak*. Bikario egon zen 1951-raino. Ixtorio frango bizi izan du. Batzuk bortitzak dira, guziz alemanen denborakoak (erresistentzian parte hartu zuen Larzabalek, ihesliarrak mugarantz bideratuz), hunkigarriak edo irriagarriak besteak. Horiez asko badaki Xarrittonek...

7-8-9. *Zokoan erreter* izendatu zuten, aiher zitzaizkion Hazparneko lantegi ugazabetatik urruntzeko bezala, kristau sindikalismoa sortzen lagundua baitzuen. Zokoako auzogunea, erdia Ziburuko, erdia Urruñako, ez da etxe meta bat baizik, edozein erakunde gabea. Horretaz parropia bat egin zuen, eliza eta apaizetxea eraikiz.

10. *1960 ondoko urteak*. Enbataren sortzailetatik izan zen, baita ihesliarren laguntzaile handia Monzon-ekin, tragedia batzuk ere bizituz, hala nola Agurtzane Etxaberen hiltzea oraino G.A.L. izena ez zuen espainiar talde baten eskutik.

11. *Azken berriak*. Bidenabar eskertzen ditu Zokoako elizan laguntzaile ukan dituenak, apaiz eta laikoak, bereiziki Mixel Daguerre, Saint-Esteben, Mattin Carrère eta Roger Idiart apaizak.

12. *Piarres Larzabal idazlea*. Bere antzerkiak aipatzen ditu bereiziki, baita irrati-telebista emankizunak, Pantxoa Etxezaharreta lagunarekin eta Maite Barnetxe zenarekin hasi zituenak.

13. *Piarres Larzabal euskaltzaina*. Euskaltzain oso izan zen 1963-tik 1988-ra, hots, hiltzeraino. Arturo Campion-en ondotik zetorren (hargatik beste biga izanak ziren artean), hura baitzen lehenbiziko lau euskaltzainetatik bat (Azkue, Eleizalde, Urquijo-rekin) eta bere ondokoa du gaur Txomin Peillen.

Ene sarrerako mintzaldia egin nuelarik Maulen 1976-an, Larzabal nuen aitatzitza, ohore handia baitzait. Han egin zidan erantzunak betetzen du zati hau eta horrekin bukatzen da liburua.

Orain hitza uzten diot paratu duen Piarres Xarritton euskaltzain oso lagunari.

PIARRES LARZABAL-EN OROITZAPENAK

Baiona, 1998-05-29
Piarres Xarriton

Adiskideak,

Jean Louis Davant-ek erran dizue zertaz ari den Piarres Larzabal euskaltzain adiskide zenaren hamargarren urteurrenkari Elkarlanean argialetxeak argitaratu duen 7. eta azken liburukia.

“Azken liburukia” erran eta idatzi ere dut, baina gerta liteke 8. bat ere izatea. Zeren Xipri Arbelbide sagu xahar adiskideak ekarri dit berrikitan Jatsuko serorategitik, kaier higatu bat, begiratzen zuena, beste kopia askoren artetik, “Amerikanoaren lau ilobak” deitu komedia, nik aspaldian bazter guzietan eskatzen nuena debaldetan. Jakin dut, bestalde, Iñaki Beobidek eta Eñaut Larraldekin badutela bakoitzak Piarres zenaren antzerki ezezagun bat eskutan. Eta, azkenean, 1960eko hamarkadan Donibane Lohizuneko euskaltzale talde batek antolatu baitzituen eta Biarritzeko Casinotik zabaldu euskal irrati emakizun batzu, Roger Idiartek begiratuak zituen emankizunen izkribuak eta Marijan Minaberri andereak berrikusten ari ditu jada ongi ezagutzen zituen paper horiek eta Larzabalen idazki bat edo beste bereiz dezake hortik.

Horiek oro bilduz bagenuke beraz oraino 8. liburuki baten gaia. Baina bego hori horretan egungotz eta aipa dezagun gaurko 7. hau.

Liburu berri bat eskuratzean irakurleak bazter uzten ohi baitu maizenik aitzin solasa, nik orain irakurriko dizkizuet aitzin solas horretarik bizpalau lerro.

“Liburu honen prestatzen ari nintzelarik, aurkitu nuen hortxe, auzoko apezpikutegian apez bat, ezagutzen ez nuena, baina ezagutzen ninduen. ‘Zer ari haiz?’ galdetu zidan eta nik ihardetsi: ‘Larzabalen oroitzapenekin lanetan.’ Hark orduan: ‘Zein Larzabal?’ Nik: ‘Zokoako apeza, jakina’. Eta besteak: ‘A! ez gurea! (hots, ez katedraleko kalonjea) Larzabal-bortizkeria baizik! (hitzez hitz: ‘Larzabal-La violence’)”.

Historia honek gogoratu zidan aspaldiko beste gertakari bat: Duela 40 bat urte apezpikutegiko lagunek eskatu zidaten gure herriko itsas bazterra ezagutaraztea Frantzia Iparraldetik zetorren fraile jakintsu eta laster apezpikutu zuten bati. Eraman nuen beraz frailea Zokoako apeztxera eta buruz buruan utzi, ordu bat edo bi, Piarres Larzabalekin. Handik ateratzean apez arrotz hark galdetu zidan: “Baina zer demontre ari da gizon hori hemen Zokoan? Baionan, apezpikutegian du horrek bere lekua.” - “Zuk hori ardiesten baduzu —nion ihardetsi—, emanen dizut txokolate presa bat!”. Ez nuen txokolate eros-terik izan, nahiz Zokoako apeza hil zelarik Baionako apezpiku berriak ehortzetara joateko ohorea egin zion.

Baina ikusi behar da, duela berrogei urte, ez zelarik oraino nehon aipu euskaldun nehoren *hortizkeriarik*, bazukeela jadanik Larzabalek bere baitan beste zerbait, batzuek miresten genuena eta beste batzu izutzen zituena, menturaz bere *zintzotasuna*. Iduritzen zait zintzotasun hori adierazten digutela Piarres Larzabalen oroitzapenek.

Idazki hauek bospasei kaieretan sakabanatuak, azken urteetan idatzia, osasunaren gatik bere kargu eta lan guziak utzi zituelarik, hots, 1979etik landa, ahal bezain guti hunki ditut, bakarrik berak eskatu bezala, kronologikoki ordenatu. Zokoakoak salbu, beste gehienak nahas mahas idatzia baitzituen “batere segidarik gabe, gogora heldu zitzaizkion bezala”.

Ez da uste izan behar Piarresen oroitzapen guziak hor direla, jadanik bazituen idatzia bereziki haurtaroko ixtorioak, 5. eta 6. liburukietan bildu ditugunak. Bestalde, Hazparneko oroitzapenek leku ederra hartzen badute ere liburuki honetan —30 orrialdez gora— denbora horren lekuko izanik nihaur, erran dezaket beste gauza frango izan zezakeela oraino kondatzeko gure herriko bikari ohiak.

Adibidez, ikusten dut hemen gaur gutartean dugula Michel Inchauspe deputatua eta, berak ez badit deus erran ere, errazki asmatzen dut oroitu dela gaztetan amatxiren ikustera heldu zelarik honek ezagutarazi ziola Larzabal apezka eta Larzabali esker bere ikerlanean kurutzatu zuela Hazparneko kristau langile gazte taldea.

Dena dela, niretzat ez da dudarik Piarres Larzabalek hemen kondatzen dizkion ixtorioek, zenbait irri eta nigarren artetik, ezagutaraziko diotela irakurleari, beste idazki batzuek menturaz salatu ez dioten idazlearen gizatasuna.